

# Elhuyar hiztegien aplikazioa

## Eskuliburua

## 1. Sarrera


Eskuliburu honetan Elhuyar hiztegien aplikazioa instalatzeko pausoak eta erabilera azalduko dugu. Aplikazio honen bidez, zure ordenagailuko edozein programatik euskara, gaztelania, frantses edo ingelesezko hitzak kontsultatu ditzakezu Elhuyar hiztegiatan. Horretarako, kursorarekin hitza hautatu, eta bi agindu hauek segidan sakatu behar dituzu: **[Ctrl + C]** eta **[Ctrl + zuriune-barra]**. Hala, hitz horrekin lotuta Elhuyar hiztegiatan dagoen informazioa azalduko zaizu leiho berri batean.

Mac OS sistema eragilearen kasuan, tekla-konbinazioak hauek dira: **[Cmd (⌘) + C]** eta **[Cmd (⌘)+ B]**, eta aplikaziotik irteteko **[Cmd (⌘)+ B]** edo **[Esc]**.

## 2. Instalazioa

Aplikazioa erabiltzen hasteko, instalatzailea [webgune honetatik](#) deskargatu beharko da. Aplikazioak Windows, Linux eta Mac OS sistema eragileetarako balio du.

Windows sistema eragilearen kasuan, behin instalatzailea deskargatuta, zoaz fitxategia deskargatu duzuen karpetera, eta honako exekutagarri hau egongo da:



Elhuyar hiztegiak 1.0.0.exe


Fitxategiaren gainean klik bikoitza egin eta instalatzen hasiko da. Instalatzaileak agindutako pausoak jarraitu besterik ez da egin beharko. Instalazioa amaitzean, Elhuyar hiztegien aplikazioa martxan jarriko da bigarren plano batean; ez da beste leihorik irekiko, eta ikono bat agertuko da bestelako aplikazioekin batera.

Sistema eragile bakoitzak bere instalatzaile propioa dauka:

- Linux: *elhuyar\_hiztegia\_1.0.0\_amd64.deb*
- Windows: *Elhuyar hiztegiak 1.0.0.exe*
- MacOS: *ElhuyarHiztegiakMacOS.zip* (Oharra: Zip fitxategia erauzi egin behar da lehenengo eta ondoren *Elhuyar hiztegiak-1.0.0.dmg* fitxategia exekutatu)

### 3. Desinstalazioa

Aplikazioa desinstalatzeko prozedura Windowsen erabiltzen ditugun gainerako beste aplikazioena bezalakoa da: "Hasi" > "Ezarpenak" > "Aplikazioak" > "Aplikazioak eta ezaugarriak" atalean, "Elhuyar hiztegiak 1.0.0.exe" aukeratu, eta "Desinstalatu" botoiaren gainean klik egin. Han agertzen diren pausoak eman behar dira hiztegiaren aplikazioa ordenagailutik guztiz ezabatzeko:




#### 4. Erabilera


Aplikazioa instalatu ondoren, erabiltzeko prest egongo da edozein programatan lanean ari garela (*Microsoft Word, LibreOffice, Google Drive, Twitter...*). Bertan hitz bat kontsultatu nahiko bagenu kurtsorearekin hiztegian bilatu nahi den hitza aukeratu eta bi agindu hauek segidan sakatu behar dira: **[Ctrl + C]** eta **[Ctrl + zuriune-barra]**. Hala, hitz horrekin lotuta Elhuyar hiztegiaren dagoen informazioa azalduko zaizu leiho berri batean, sistemak automatikoki detektatuko du aukeratutako hitzaren hizkuntza.

Mac OS sistema eragilearen kasuan, tekla-konbinazioak hauek dira: **[Cmd (⌘) + C]** eta **[Cmd (⌘) + B]**.

Erabilera-adibide batzuen bidez, aplikazioaren funtzionamendua erakutsiko dugu segidan. Adibidez, LibreOffice programan gaudela euskarazko hitza hautatu, **[Ctrl + C]** eta **[Ctrl + zuriune-barra]** sakatu eta, zuzenean, hiztegiaren aplikazioa ireki eta euskara-gaztelania hiztegiaren informazioa azalduko da:




Esan bezala, aplikazioak edozein programatan, euskarazko, gaztelaniazko, frantseseko zein ingelesezko hitzen bilaketa egiten du. Hurrengo irudian, web-nabigatzaile batetik frantseseko hitza hautatu, **[Ctrl + C]** eta **[Ctrl + zuriune-barra]** sakatu eta eta frantsesa-euskara hiztegiko informazioa erakusten da:



Hurrengo adibidean, gaztelaniazko hitza hautatu da mezularitza-zerbitzu batean (Gmail zerbitzuan), lehen aipatutako letra-konbinazioa sakatu eta gaztelania-euskara hiztegiko informazioa erakutsiko da:



Ingelesko hitza hautatuz gero, ingelesa-euskara hiztegian egingo du bilaketa:



Behin aplikazioa irekita, ohiko hiztegi bilaketak egiteko aukera dago, goian erdigunean kokatzen den hizkuntza- eta bilaketa-kutxa erabiliz.

Azkenik, aplikaziotik irteteko [Ctrl + zuriune-barra] edo [Esc] sakatu beharko duzu. MacOS sistema eragilean, aldiz, [Cmd (⌘)+ B] edo [Esc].